

ARRATEKO ATERPETXEA

Ekipamenduak 1910. urtean jarri zen abian, Udalaren gizarte-ekimen baten parte gisa. Ekimena benetan berritzailea eta aurrerakoia izan zen bere saiorako, zuzenduta baitzegoen baliabide ekonomiko gutxiko Eibarko neskatila-mutikoak udako hilabeteetan hartzera, aisialdiaz goza zezaketen lekuetara joan zitezzen, itsasoko bainuak izan edo, kasu honetan bezala, Arrate mendiko aire osasungarria.

Gaur egunera etorrira, Udalak eraikinaren berreskurapen-prozesuari ekin zion, Eskola Tailerraren lehendabiziko programetako baten bitartez. Obra asmo handiko ekintza izan zen, eta ahalbidetu zuen eraikinaren barrualdea zein kanpoaldea zaharberritzea. Zaharberritzearen ondoren, lehiaketara atera zen eraikinaren kudeaketa eta berriro ere ateak ireki zituen 1998an.

Orduan ere hitz egin zen aterpetxea ikasleentzako natura eta ingurumen-heziketarako zentro bihurtzeko aukeraz, aterpetxe-erabilera osatze aldera.

Birgaitzeko eta zaharberritzeko azken lanen ondoren, geletako bat Gerra Zibilaren Eibarko Fronteari buruzko Interpretazio Zentroa jartzeko egokitu da, inguruko erreferente berezia sortzeko helburuarekin. Interpretazio Zentroan 1936ko urritik 1937ko apirilera bitarteko aldia azaltzen da: garaia hartan Arrateko inguruak Gerrako Frontea mugatzen zuen. Gertaera historiko hark gerraren hainbat aztarna laga zituen Arrate inguruan, zeinak erakargarri turistiko berezi gisa erabili daitezkeen.

Suspertu SL enpresak eskaintzen ditu zerbitzu guztiak.

Informazioa eta erreserbak:

- www.ateri.net
- albergues@ateri.net
- Tel: 94 402 90 99